**ACT- MC-2018/0058**

**KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA**

**BAT ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA"**

**Espediente zbkia**: 2-EM-28/2016/DO

**Kontratuaren xedea**: GI-638 errepidea hobetzeko eta 1+200 eta 3+610 KP-en artean oinezkoen pasealekua egiteko proiektuko obretan laguntza teknikoa.

**Eguna:** 2018ko irailaren 6a

**Hasiera ordua:** 13:00
**Amaiera ordua:** 13:50

**Tokia:** Bide Azpiegituretako Departamentuaren erabilera anitzeko 3.gela (Miramon pasealekua, 166.)

**Bertaratutakoak:**

**Mahaiburua:** Jesús Angel Maguregui Arregui, Plangintza eta Ustiapen Unitatearen burua.

**Bokalak:**

Jose Antonio Navarro Jausoro, Bide Azpiegituren Birgaitze eta Berrikuntza Zerbitzuko ITOPa.

Ramón Giménez Díaz, Bide Azpiegituretako Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzuko ITOPa.

Jon Ander Arrieta Berasarte, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontu-hartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkaria.

Elixabete Martinez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa.

**Idazkaria:** Miguel Fonseca de la Rosa, Kontratazio Zerbitzuko burua.

Ekintza honetarako Jesús Angel Maguregui Arreguik, Jose Antonio Navarro Jausorok eta Ramón Giménez Díazek, mahaiburua lehenengo bi bokalak ordezkatu dituzte, administratibo berezien agiriko 24. baldintzak dionaren arabera.

Goian aipatutako lekuan eta orduan, aurrez adierazitako kideekin, Kontratazio Mahaia eratu da lizitazioan aurkeztutako bat zenbakiko artxibo elektronikoa (Aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa) irekitzeko. Enpresa hauek aurkeztu dute eskaintza:

| Hurrenkera | Lizitatzaileak |
|---|---|
| 1 | UTE ASMATU-GEOCONSULT |
| 2 | EPTISA CINSA INGENIERIA Y CALIDAD, S.A. |
| 3 | TÉCNICA Y PROYECTOS, S.A. |
| 4 | UTE GIRDER-SAITEC |

Ekintza horretan ikusi da ASMATU-GOECONSULT UTEak eta GIRDER-SAITEC UTEak aurkeztutako DEUC dokumentu-ereduetan ez zegoela B atala: Kaudimen ekonomiko-finantzarioaria eta C atala: Kaudimen teknikoari dagozkion datuak jasota

2017ko azaroaren 8koa, 9/2017 Alor Publikoen Kontratuen Legearen 141.artikuluak ezarritakoari jarraituz, gehienez **hiru egun naturaleko epean,** eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akats edo hutsuneak zuzentzeko. Halaber, jakinarazi zaio eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badu lizitaziotik kanpo gelditatuko direla.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

Donostian, 2018ko irailaren 6a

MAHAIBURUAren ordez,

Sin.- Jesús Angel Maguregui Arregui

IDAZKARIA,

Sin.- Miguel Fonseca de la Rosa